# KOMUNISTEN BATASUNA

KOMUNISTEN BATASUNA – UNIFICACION COMUNISTA
ORGANIZAZIOAREN DIREKZIOAK ARGITARATUA

-10 pezeta-

## "JUNTA DEMOCRATICA DE ESPAÑA" DELAKOA:

## AUKERABIDE BURGES BAT

urtarrila 75 1.alea

UAB
Biblioteca de Comunicació i Hemeroteca General
CEDOC

## 3.- ESTATU ESPAINOLEKO ASKATASUNA,GAUR,EZIN DAITEKE DEMOKRAZIA SOZIALISTA BAIZIK IZAN

Gaur komunistak defenditzen ditugun libertadeak -esplotatu eta zapalduen masa zabalentzako askatasunak- ezin etorri ditezke burgesiaren ematitza greziatu eta emankor baten bidez;burgesiaren aurkako masa-burrukaren ondorio,burgesiaren botere politiko eta ekonomikoa desegin eta haren bizitza-kondizioak lortzeko burrukaren ondorio izanen da,ezinbestean.

Klaserik iraultzaileenak eta konsekuentoenak -langileriak- masa herrikoietan oinarriturik osatuko duen botere politikoaren bidez,eta ez beste inola,abiatuko gare herriaren egiazko liberazio ekonomiko eta politikoaren bidean.

Burgesiaren Estatu-tresna desegin gabe,ezin erabili dituzte masek,mugarik gabe eta askatasun osoz,elkartzeko,biltzeko eta espresatzeko eskubideak. MASEK PRODUKZIO-HARREMAN KAPITALISTAK APURTZEN DITUZTEN ERAN eta haien lekuan harreman sozialista batzuk jartzen dituzten eran mantendu eta zabalduko dira askatasun horik.

Masa esplotatu eta zapalduak bere egunoroko jarduna,bere bizitzea inguratzen duten kondizio materialen jabe izanik erabakiko dute eta organizatuko dire;produzitzen dutena bere beharrak asetzeko gauza izanik (eta ez alderantziz,produkzioa helburutzat duen kapitalismoaren pean gertatzen den bezala); bere lanaren kondizioak kontrolatzeko eta zuzentzeko gauza izanik;inizietibak ito beharrean bultzatu eginen dituen administrazio eta harmada baten jabe izanik; bere ordezkariak zuzenean aukeratzeko eta baztertzeko eskubidea izanik,zuzendariak kritikatzeko gauza izanik.

Demokrazia sozialistak sortzen ditu langileriarentzako eta masa herrikoientzako benetako askatasun bat ekintzara eramanen duten oinarrak.

## MARXISTA LENINISTEN EGINBEHARRAK,JUNTAREN PROGRAMAREN AURREAN

Burgesia monopolistaren sektore batek ikasi du bide iraultzaileak egunetik egunera aurrera egiten duela,ikasi du azken urteetan sortu garen organizazio iraultzaileok gero eta hobekiago ari garela umekeria eta aspaldiko erruak gainditzen.Egoera honen aurrean,burgesiaren sektore batzuk pentsatzen dute PCEari konstituzio demokratiko-burges baten babesean lan egiten uzten bazaio, PCEk masen gain duen nagusigoa indartu eginen litzatekeela eta,beraz,bide iraultzailearen aurrerakada gelditu eginen litzatekeela. Beste hitzetan,burgesiak joka dezake masei erreforma-programa bat eskaintzeko karta eta honela mugimendua desorganizatu eta menperatu.

Aukerabide politiko burges honen aurrean,marxista-leninistek taktika apropos bat egokitu behar dugu.

### 1.- MUGIMENDU LANGILEAREN DEFENTSA,BIDE IRAULTZAILE BATETAN

Galerazi egin behar diogu burgesiari Mugimendu Langilea oztopatzeko,CCOOak desegiteko eta mugimenduaren desarroiloa itotzeko egiten duen saio oro.Horretarako,militante iraultzaile guztien betebeharra da CCOOak eta antzeko oinarrizko komiteak indartzeko lan egitea,CCOOen autonomia,independantzia eta klandestinidadea sendotzeko eta koordinazio-bideak indartzeko lan egitea.

Honekin batera,hasiera eman behar diogu Juntaren programan azaltzen diren helburu burgesak salatzeko ekintzari,batez ere "CNSaren demokratizazioa","Mugimendu Langileari Sindicato Verticalaren ondasunak itzuli","CCOOak sindikato bilakatu" eta antzeko esaldi demagojikoen kontra.

### CCOOETAN ERREIBINDIKAZIO INMEDIATOEN ALDE EGITEN DEN BURRUKA,GUDU HAUEK ADIERAZTEN DITUZTEN ALDAKETA SOZIALISTEKIN BATU

(Erreformistek burruka inmediatoen eta demokrazia burgesaren programaren artean ezartzen duten loturaren aurka)

Masen beharrak asetzen ez dituen erreforma-programa baten aurka,ajitazioa egin behar dugu eta masen beharrak benetan asetuko dituzten aldaketa iraultzaileak zabaldu.

Gaur masek dituzten bizitza -eta lan- kondizioetan oinarriturik aldaketa hauk programa iraultzaile batetan gauzatzeko eginbeharra da gaur lineagintzaren prozesoaren bete beharra,marxista leninisten batasunaren eta Aldordiaren eraiketaren betebeharra.

### 3.- MARXISTA LENINISTEN ETA IRAULTZAILEEN BATASUN LOTURAK GOGORTU ALDERDIAREN ERAIKETAREN PROZESOAN

Honako hau goragoko bi puntuak ere emankor batez betetzeko baldintza da. CCOOen mugimenduko indarren elkarrerreana,Estatu guztiari dagokionez,ba dirudi bide errebisionistaren onetan eta,beraz,bide iraultzailearen kaltetan aurkitzen dela gaur.Egoera larri honen eragile bat militante iraultzaileen sakabanatzea da,zatiketa honen poderioz ez baitute linea bateratu batetan lan egiten.Marxista-leninistek Mugimendu Langilean bide iraultzailea defenditzen duen edozein organizazioko edo organizatu gabeko militanteakin batasun politiko bat aurrera eramateko gauza bagara,indarren elkarrerreman hura aldatu egin daiteke.Beraz,ez dugu galdutzat eman behar errebisionismoaren aurkako burruka,ez dugu pentsatu behar asots demokratiko-burgesak nahi-ta-ez zabalduko direnik,zeren organizazio eta militante iraultzaileen faktore subjetiboak eragin haundia izan baitezake Mugimendu Langilearengan bide iraultzailearen alde.Hauzia honetan datza : teorian batasun-linea bat defenditzen duten marxista-leninistek linea hori ekintzara eraman eta CCOOetako militante iraultzaileen ahaleginak borondate bakar batean biltzeko gauza ote diren.

Bestalde,CCOOetako erreibindikazio hurbillak aldaketa iraultzaileakin bateratzeko,beharrezko da ere indar marxista-leninisten artean iritzi eta konsignen batasunera heltzera,Mugimendu Langilean zabaldutako propagandaren eraginak hedadura zabaldu dezan.Gainera,batasun hori pauso haundi bat izanen da organizazio marxista-leninista guztiok Aldordi bakar batetan bilduko gaitun programa iraultzailearen prozesoan.

Azken finean,Juntaren programa burgesia monopolistak eta errebisionismoak,momentua egokitzen denean,Mugimendu Langile eta herrikoiari kolpe gogor bat eman eta burgesiaren Estatu-aparatoa sendotzeko sortu duten tresna bada ere,asmo inoiz gauzatzen . bada ere,MANIOBRA HAU ZEHARO BESTELAKOA GERTATU DAITEKE,MARXISTA-LENINISTEK BATASUN-POLITIKA BATEN ALDE LAN EGITEN BADUGU.



UAB Biblioteca de Comunicació